



## **ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA (ELE) ARAUTZEKO ORDENANTZA ONARTU AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA**

Oiartzungo Udalaren asmoa da udalerrian eragin linguistikoaren ebaluazioa (ELE) arautzeko ordenantza onartzea.

Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarrek lege mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran duten parte-hartzea hobetzearren, arautegi-proiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek, hala uste badute, 2023ko apirilaren 21 arte helaraz ditzakete galdetegi honetan planteatutako alderdiei buruzko iritzia, helbide elektronikoen bidez: [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus), edo Udaleko Erregistro Orokorrean (Done Eztebe plaza, 1).

Ekarpen horiek aztertu eta kontuan hartuko dira, hala badagokio.

### **Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak:**

Oiartzun udalerrri euskalduna da, euskararen indizea % 70etik gorakoa duelako (% 82,6koa). Gainera, bada ikuspuntu soziolinguistikotik aparteko balioa duten guneak, arnaguneak, euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa daukatelako. Oiartzungo kasuan auzoen erdia baino gehiagok betetzen dute baldintza hori.

Ordenantzak zehaztuko ditu ebaluatu beharreko planak, proiektuak, erregelamenduak edo ordenantzak, ebaluazioa egiteko ardura duten pertsonak edo erakundeak, jarraitu beharreko prozedura eta hizkuntza-inpaktua ebaluatzeko unea, arnaguneak babestu eta indartzeko eta udalerrri euskaldun izateari eusteko.

### **Onartzeko beharra eta egokitasuna:**

Autonomia Estatutuaren 6. artikuluari jarraiki, eta hizkuntza alorrean garatzen duen legediari ere —funtsean 10/1982 Legea, azaroaren 24koa—, Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza euskara da. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluko 7. atalak honakoa xedatzen du: «Udaletako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira».

Besteak beste, aipaturiko artikuluko hori garatzen duen 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa

normalizatzeari buruzkoak, zioen azalpenean, argi adierazten du hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioak izaera irekia daukela eta izaera hori arrazoizkoa dela, bai administrazio-jardueraren sinplifikazio-printzipioaren ikuspegitik bai hizkuntza politikako tresna gisa izan behar duen efikaziagatik. Ondoren, zehazten du: «... gai honetan ere udal bakoitzari tarte zabala ematen zaio, hizkuntza-normalizazioaren arloko erantzukizuna hoberen irizten dion moduan gauzatu dezan, baina beti gutxienerako irizpide batzuk betez. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioak udalei aukera aski handia ematen die egoera malgutasunez aztertu eta baloratzeko, halako eran non sistema malgu bat eskaintzen bazaie udalei, planifikatzeko eta programatzeko garaian hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren abantailez balia daitezten».

Ordenantzak proposatzen du araudi horretan xedatutakoa udalerrinari egokitzea, horretarako prozedura ordenatua eta ebaluazio hori egiteko metodologia argia ezarriz.

### **Arauen helburuak:**

Ordenantza honen helburua da, batetik, Oiartzungo egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planak eta proiektuak, ordenantzak eta erregelamenduak, egiteko eta onartzeko prozeduretan eta haiei baimena edo gaikuntza emateko prozeduretan, hizkuntza alderdiak eta euskararen erabileraren normalizazioa gehitzea. Bestetik, euskararen erabilera normalizatzeko onuragarriak diren aukerak aztertzea eta kontuan hartzea, eta ondorioz, neurriak diseinatzea, euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko.

Gainera, Udalak ebaluazio hori barne funtzionamendua arautzen duten erregelamenduetara eta zerbitzuak arautzen dituzten ordenantzetara zabaldu nahi du, borondatea baitu, xedapen horiek sor ditzaketen eragin linguistikoa antzeman eta, beharrezkoa ikusiz gero, zuzendu edo arintzea hasieratik bidera dadin.

### **Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik**

Aztergai dugun gaia ordenantzaren bidez arautu behar da, hain zuzen ere, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan jasotako erregulazioaren bidez.

Zehazki, hirugarren xedapen gehigarriaren 2. zenbakiak xedatzen du Udalek publiko egin beharko dutela zer metodologia erabiliko duten planen eta programen hizkuntza-inpaktua ebaluatzeko. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen organoak eskaintzen duen metodologiarekin bat egitea erabaki dezaketela edo metodologia propioa garatu. Azken kasu horretan, metodologia onartu egin beharko da eta toki-korporazio bakoitzaren web-atarian argitaratu.

Beraz, xedapen gehigarri horretan xedatutakoari jarraituz, udal honek bere metodologia propioa ezartzea erabaki du, eta, horretarako, bere eduki eta irismen orokorragatik, izaera arauemailea duen xedapen batean baino ezin dira gauzatu, hau da, udal ordenantza batean.